

Bezzeroarekiko harremana:

IkasMag-en, bezzeroarekiko harremanak funtsezkoak dira hezkuntza-sektorearen beharrak modu egokian ulertu eta betetzeko. Horregatik, harreman mota desberdinak uztartzen ditugu, ikastetxe bakoitzaren beharretara egokitzeko eta erabiltzaileen esperientzia ahalik eta eraginkorrena izateko.

Gure enpresak honako harreman motak garatuko ditu bezzeroekin:

- Laguntza pertsonala: Ikastetxeetara joango gara aurrez aurreko azalpenak eta produktuaren demostratzeko. Zalantzak momentuan bertan argitu eta erosketa-prozesua erraztuko dugu.
- Laguntza pertsonal eskainia: Bezero nagusientzat edo hainbat ikasgela berritzen dituzten zentroentzat, arduradun espezifikoko bat jarriko dugu harreman zuzen eta pertsonalizatua bermatzeko.
- Autozerbitzua: Gure webgunean informazio osoa, prezioak, argazkiak, erabilera-gidak eta galdera ohikoen atala jarriko ditugu, bezzeroek informazioa autonomoki eskuratu ahal izateko.
- Zerbitzu automatizatuak: Errotuladoreen ordezkapen-harpidetzak, bidalketen jakinarazpen automatikoak eta kontsulta errazak kudeatzeko web-formulariak eskainiko ditugu.
- Komunitateak: Hezkuntza-komunitatearekin lotutako sare sozialak eta foro txikiak sortuko ditugu, produktuaren inguruko esperientziak, iritziak eta hobekuntza proposamenak partekatzeko.
- Baterako sorkuntza: Irakasle eta hezkuntza-zentroekin elkarlanean arituko gara prototipoak hobetzeko, funtzionaltasun berriak probatzeko edo beharren arabera diseinu-egokitzapenak egiteko.